


Ura eguzkian

Ura aurkitu dute Eguzkian. Zehatzago esanda, uraren presentzia salatzen duten argi-espektroko seinaleak. Arizonako Behatokiko eguzki-teleskopioa erabiliz, Eguzkiaren orbanak ikertzen ari zirela atzeman dute ura edo lurrina. Orbanetako nukleoa alderik ilun eta hotzena da eta, izatekotan, ura bertan egongo zela pentsatu



Arizonako Behatokiko eguzki-teleskopioa erabiliz, Eguzkiaren orbanak ikertzen ari zirela atzeman dute ura edo lurrina Eguzkian.

zuten ikerlariek. Bete-beteen asmatu zuten. Harrigarria gerta badaiteteke ere, Eguzkian ura atzeman zitekeela aspaldian esana zuen zenbait astronomok. Eguzki-azalaren eta eguzki-orbanen artean dagoen tenperatura-aldeak nahikoa handia izan behar zuela zioten, era horretan azalean lurrindutako

ura orbanetako nukleoan likido bilaka baitaiteke. Orain Arizonako ikerlariek iragarri duteenez, azaleko eta orbanetako tenperatura-aldea 100 K ingurukoa da.


12 milioi urteko gaztetxoa

Orain arte, irudian azaltzen den izarra inguratzen duen diskoak eman dio ospea. Beta Pictoris izeneko izarra, ordea, uste baino gazteagoa dela jakin ahal izan dugu. NASAko astronomoek plazaratutako hipotesia baieztatzekotan, Lurretik gertuen dagoen izarrik gazteena litzateke Beta Pictoris. Teleskopioetatik hain hurbil egoteak izar baten jaiotza ondorengo urratsak hobeto ezagutzea ahalbideratuko luke. Bere diskoaren egitura aztertuz, Beta Pictoris 100 milioi urteko izarra

zela esan izan da. NASAko ikerlariek dioteenez, ordea, izar horren diskoa oraindik diztira-tsua da oso eta hori ez da gertatzen 100 milioi urteko izarrei, kasuan. Aitzitik, izar hori "sortu berria" dela eta garapenaren urratsean dagoela diote ikerlariek. Zehazki, Beta Pictoris duela 12 milioi urte sortu zela uste dute astronomo horiek. Teoria hori muturrera eramanez gero, izar gazte hori oraindik planetak sortzeko gai dela ondoriozta genezake.

Izarrak itzaltzen direnean

Eguzkiaren antzeko izarra da ondorengo irudikoa. Zehatzago esanda, izarren azken arrastoa. Izan ere, NGC 6543 edo "Katuaren begia" izeneko izar horrenak egin dituela esan deza-



Eguzkiaren antzekoa den "Katuaren begia" izarren azken arrastoaren lekukoa da irudiko argazkia.

kegu jadanik. Dragoiaren konstelazioko izarra da eta Hubble teleskopioak bidali du bere heriotzaren berria. Izarra bere kemena galdu ahala, puztu eta ezegonkortu egiten da. Horren ondorioz, izarren masa gutxiagotzen hasten da eta alde guttiara kanporatzen izarren nukleoak erretako gasa. Gasak energia askatzen du eta horren ondorio dira izarren inguruan ageri diren eraztun koloretsuak. Oraingoz, prozesu ikusgarriaz gozatzea baino ez du ahalbideratuko "Katuaren begia" izeneko izarren heriotzak. Alabaina, balio zientifiko itzela izango du horrek, izar arrunten bila-kaera aztertzeke balio izango baitu. Hori ezagutzeak, besteak beste, Eguzkia itzaltzean jasan-go duen prozesua hobeto ulertzeko bidea eskainiko du. Hori jakina, ez da bihar-etzitan gertatuko, hemendik 5 edota 6 mila milioi urtera baizik. Guk ez dugu hori ikusterik izango, baina gertakaria aurrikusteko moduan izango garelako uste dute astronomoek.

Argazkiko Beta Pictoris duela 12 milioi urte sortu zela uste dute NASAko astronomoek. Beraz, "sortu berria" eta garapenaren urratsean dagoela esan daiteke.

